

## Balore-proposamena

- Gure zerbitzuaren helburu nagusia bezeroei lana eta denbora erraztea da, honen bidez erreztasun edo erosotasuna eskeiniz. Gure lehiakideengandik bereizten gaituzten faktore nagusiak pertsonalizazioa, lana erraztea eta eskuragarritasuna dira. Zenbat aldiz gertatu zaigu bidaia batetara joatea eta hoteletik hegaldia baino leheneago atera behar izana? Gure zerbitzuak kasu hauen aurrean maletak edo ekipamendu pertsonala gordetzeko aukera emango dizu, maleten pisua ez kargatzeko, eta bidaia azken uneez gozatu ahal izateko.  
Ez da beharrezkoa maleta edo objektu handiak edukitzea gure zerbitzua erabiltzeko. Honek, zure mugikorra edo gailu elektronikoak kargatzea ere ahalbidetuko dizulako. Beraz, ez dugu zerbitzu bakar bat eskaintzen. Gaur egun gailu elektronikoak gehien erabiltzen ditugun objektuak direla eta gure eguneroko esparru guztietan (lanerako, argazkiak ateratzeko, komunikatzeko..) erabiltzen ditugula kontuan hartuta, zerbitzu honen bidez, erraztasun handi bat emango genukela uste dugu. Gailu hauek kargatzeko aukera emango dugu gure zerbitzuari esker.
- Segurtasun handiko zerbitzu bat dela esan dezakegu, bezero bakoitzak bere armairu pertsonala izango duelako eta bere gauza pertsonalak entregatzerakoan, bai maletak eta bai gailu elektronikoak, segurtasun kontratu txiki bat sinatuko duelako enpresaren jabeekin. Gauzak noiz sartu eta irtengo diren orduak zehaztuta egongo dira, kontrol seguru eta hobeago bat izateko helburuarekin.
- Gure enpresan, prezio finkoak izango ditugu, hau da, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak. Finkoen barruan, bolumenaren araberako prezioa dago, hau da, prezioa aldatu egiten da erositako kopuruaren arabera.
- Lehiakideengandik bereiz gaitetzke honakoen bitartez:
  - Pertsonalizazioa → Hau da, gure proiektu hau bezeroen beharretara egokitzen da. Gure kasuan, maletak utzi edo mugikorrak modu seguru batean kargatzeko bezeroen beharrak asetuko ditugu. Pertsonalizazioa da pertsona bakoitzak ez duelako egutegi finkorik jarraitu behar, 24 orduko zerbitzua baita. Pertsona bakoitza ondo datorkion orduan sartu ahal izango da.
  - Lana erraztea → Balorezko proposamenaren xedea, lana erraztea da. Hau da, zerbitzu honi esker, bezeroei zenbait gauza egiteko erreztasun hori ematea lortuko dugu. Adibidez: Pertsona bat hotelak akordatutako ordu batetik aurrera sartu behar denean eta ordu hori baino lehen iristen denean helmugara, gure zerbitzuari esker aukera izango du bere maletak leku seguru batean gordeta izateko eta denbora hori aprobetxatu ahal izateko gainean kargarik izan gabe.
  - Eskuragarritasuna → Garai batean, mugikorrak kargatu ahal izateko toki pribatu baten beharra zeukagun (taberna, liburutegi, etxe bat), hau da, bezero jakin batzuk bakarrik ahal zuten erabili, gure zerbitzuak, toki pribatuetara joan beharrik ez, behar hauek asetzeko aukera ematen du. Adibidez, mugikorrak kargatu ahal izateko taberna edota etxe baten baitan geuden. Orain berriz, zerbitzu honekin ez daukagu zertan toki pribatu batera joan.